

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OIONGO UDALA

#### **Askotariko eginkizunetarako ofizialaren bi plaza betetzeko prozesuaren oinarriak eta deialdia onartzea**

Askotariko eginkizunetarako ofizialaren bi plaza jabetzan betetzeko deialdiaren oinarri arautzaileak onartzea, hautaketa prozesua deitzea, eta oinarriak oso-osorik ALHAOn (180618) argitaratzea ebatzi du administrazio honek.

Espedientearen erreferentzia alfanumerikoa: LBOBACSEE161XX 1 eta 2. Eskabideak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Oion, 2018ko ekainaren 20a

*Alkatea*

*CONCEPCIÓN VILLANUEVA*

#### **Eranskina: Askotariko eginkizunetarako ofizialaren bi plaza jabetzan eta lehiaketa-oposizio sistemaren bidez betetzeko deialdiaren oinarri arautzaileak**

##### **Lehenengoa. Deialdiaren xedea**

Oiongo Udalaren 2018ko lan eskaintza publikoaren arabera, askotariko eginkizunetarako ofizialaren bi (2) plaza jabetzan, lehiaketa-oposizio sistemaren bidez, eta txanda librean betetzeko hautaprobak deitzea da oinarri hauen xedea. Lanpostu horien kodeak honako hauek dira: LBOBACSEE161XX1 eta LBOBACSEE161XX2, langile lan kontratudunen lanpostuen zerrendan; titulazioa: talde profesionalak; maila: 16; hizkuntza eskakizuna: 1 (derrigortasun datarik gabe); eskatutako titulazioa: eskola ziurtagiria eta B 1 kategoriako gidabaimena.

Udalak urtero obretako lantalderako ezartzen duen lanaldia aplikatuko zaie, eta horren barruan, bi asteburutik batean zaintza lanetan aritu beharko dira, udalerrian sor daitezkeen larrialdietan erantzuteko. Edonola ere, larrialdi baten aurrean erantzuteko denbora ordubetetik beherakoa izan beharko da.

Epaimahaiak ezingo ditu hautetsizat jo deialdiko lanpostu kopurua baino lehiatzaile gehiago. Muga hori hausten duten proposamenak erabat baliogabeak izango dira. Hautagaietako batek ere ez baditu gainditzen baztertzailak diren proba guztiak, plaza hutsik geratuko da.

##### **Bigarrena. Eginkizunak**

– Igeltserotza, iturgintza, soldadura, arotzeria, elektrizitate, pintura eta kofratze lanak eta obrak egitea.

– Kanposantuen esparruaren kontserbazioa eta atondura zaintzea, eta antzemandako hutsuneak zuzentzen saiatzea.

– Askotariko egitura eta eszenatoki mugikorrek muntatu eta desmuntatzeko lanak garatzea, bai eta altueran gauzatu beharreko zenbait lan egitea ere. Hesiak, seinaleak... jartzea.

- Udal azpiegituretan konponketa lanak egitea, besteak beste ur sareetan (edateko uraren sarean, ureztatzeko uraren sarean...). Herriko argiak, ekipamendua eta eraikinak konpontzea.
- Kale, bide, areka eta abarretan mantentze lanak egitea.
- Lorezaintza lanak garatzea.
- Fatxadak garbitu, pintadak ezabatu eta kartelak kentzea. Halaber, bide publikoa egokitzeko beste lan batzuk ere egitea, besteak beste: sasiak kendu, pankartak erretiratu eta baldintza txarretan dauden elementuak ordezkatu edo konpontzea, bai bide publikoan, bai udalaren egoitzetan.
- Ohiko lanalditik kanpo matxurei arreta ematea, hala eskatuz gero. Era berean, ohiko lanalditik kanpo lan egiteko eskatu ahal izango da, jai egunetan edo beste egoera berezi batzuetan.
- Materialak jaso, kargatu eta deskargatzea, eta materialok biltzeko lanak egitea.
- Beren lan kategoriaren barruan sartzen diren beste lan batzuk egitea, kultura, kirol edo jaiekin lotutako jardueretan.
- Obretako ibilgailuak eta makinak erabiltzea (iraulki motorra, atzerako hondeamakina, sasiak garbitzeko makina, soldagailua eta antzekoak), agindutako lanak egiteko bide publikoan, edo kargak garraiatu edo manipulatzeko.
- Obretako lantaldearen ibilgailuak gidatzea.
- Ibilgailuak eta makinak garbitu eta mantentzeko oinarrizko lanak egitea, bai eta koipea eman, garbitu, mailak egiaztatu, olioia aldatu eta antzeko zereginak gauzatzea ere.
- Erabiltzen den laneko materialaren ardura hartzea.
- Salbuespen egoeretan beharrezko lanak egitea: elurteetan, izozteetan, ekaitzetan, suteetan, uholdeetan eta abar.
- Udalaren jakinarazpen eta komunikazioak banatzea, iragarki taulak mantentzea, eta udalak agintzen dituen kartel eta agiriak jartzea.
- Ezarritako lan programaren eta maila altuagoko arduradunak baloratutako zerbitzu beharrianen ondorioz kasu jakin batzuetan ordutegiaren malgutasunari jarraikiz planteatzen diren eskakizunetara egokitzea.
- Deskribatutakoez gain ezartzen diren beste eginkizun batzuk betetzea, lanpostua eskuratu eta betetzeko eskatutako kualifikazioarekin bat batuz, beren eskumen arloaren barruan sortzen badira, eta maila altuagoko karguek eskatzen badizkiete.

#### **Hirugarrena. Hautagaien betekizunak**

1. Hautaketa prozesuan onartua izateko, honako betekizun hauek bete beharko dira:

- a) Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea, edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak ezartzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukan estaturen bateko nazionalitatea edukitzea. Halaber, Europako Batasuneko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, baldin eta legez bereizita ez badaude, baita herritartasuna duenaren eta haren ezkontidearen ondorengoez ere, baldin eta legez bereizita ez badaude. Azken horiek 21 urte baino gutxiago izan beharko dituzte, edo bestela gurasoen kontura bizi. Halaber, Espainian legezko egoitza duten atzerritarrek parte hartu ahal izango dute, Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalak izan ez arren (enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateginekoko 57.4. artikulua, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua).
- b) Hamasei (16) urte beteta edukitzea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina gaintu gabe izatea.

c) Lanpostuaren berezko eginkizunak normaltasunez egitea galarazten duen gaixotasunik edo mugapen fisiko edo psikikorik ez edukitzea. Hala ere, apirilaren 7ko 13/1982 Legea, minus-baliatuak gizarteratzeari buruzkoa, aplikatu ahalko da.

d) Diziplina espedientearen bidez, inongo administrazio publikotik baztertuta ez egotea, eta eginkizun publikoak betetzeko desgaiturik ez egotea. Atzerritarra izanez gero, norbere estatuan funtzio publikora sartzeari galarazten duen diziplina zigorrak edo kondena penalik ez izatea.

e) Eskola ziurtagiria edo beste agiri baliokideren bat edukitzea, edo hura edukitzeko baldintzak betetzea eskabidea aurkezteko epea amaitzen den datan.

f) B kategoriako gidabaimena edukitzea.

g) Abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, Herri Administrazioetako Langileen Bateriaezintasunei buruzkoak, ezarritakoaren arabera, ezintasun eta bateraezintasun kasuren batean ez egotea; dena dela, egun kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezinen bat dutenek bata edo bestea aukeratu ahal izango dute, arau orokor horrek horretarako eskubidea ematen baitie.

2. Betekizun horiek guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira. Halaber, horiek guztiak eduki beharko dira, hautaketa prozeduran zehar, izendapena egiten den arte, oinarri honetako g) puntuan ezarritakoa galarazi gabe.

#### **Laugarrena. Eskabideak aurkeztea**

1. Modua: Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredu hori Oiongo udaletxean har daiteke (plaza nagusia 5, 01320 Oion), bai eta honako webgune honetan ere: <http://www.ayuntamientodeoyon.com/es/>.

Onartuak izateko, eta, hala badagokio, hautaprobetan parte hartzeko, hautagaiek beren eskabidean adieraziko dute eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela, eskabideak aurkezteko epea iraungi baino lehen. Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) B kategoriako gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.

b) Deialdian parte hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, aurrez alegatu diren eta lehiaketa fasean baloratuko diren merezimenduak zehatz-mehatz zerrendatzen dituen, lekua, data, plaza, ikastaroak eta beste-lakoak zehaztuta.

Alegatutako merezimenduak agiri bidez egiaztatuko dira, hamargarren oinarrian zehaztutako moduan eta epean.

Apirilaren 28ko 522/2006 Errege Dekretuan, Estatuko Administrazio Orokorraren eta horri lotuta edo horren menpe dauden organismo publikoen prozedura administratiboetan nortasun agirien fotokopiak aurkeztu beharra kentzen duen horretan, ezarritakoaren arabera, ez da nortasuna egiaztatzeko agiriaren fotokopiarik edo txartel baliokiderik eskatuko.

2. Eskabideak aurkezteko lekua: behar bezala beteta aurkeztuko dira eskabideak, Oiongo Udaleko Erregistro Orokorrean. Era berean, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38.4. artikuluan adierazten dituen herri administrazioen erregistroetan ere aurkeztu ahalko dira. Oiongo Udaleko Alkatetzara zuzenduko dira, data eta zigilu egokia jarrita, eskabideak aurkezteko epearen barruan. Antzeman daitezkeen egitatezko okerrak edozein unetan zuzendu ahalko dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

3. Eskabideak aurkezteko epea: hogeita (20) egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdiaren laburpena «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak aurkezteko azken eguna baliogabekoa bada, dagokion hurrengo egun baliodunean aurkeztu ahalko dira.

4. Eskabideetako akatsak zuzentzea: urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak (aurrerantzean, APPEL), 68.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabideetan akatsak egonez gero, interesdunei agindeia egingo zaie, hamar eguneko epean okerra zuzen dezaten. Halakorik egin ezean, eskabideari uko egin diotela ulertuko da.

#### **Bosgarrena. Eskabideak onartzea**

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Oiongo Udaleko Alkatetza-burutzak ebazpena onartuko du eta ALHAOn, udaletxeko iragarki taulan eta webgunean (<http://www.ayuntamientodeoyon.com/es/>) argitaratuko du, onartu diren eta baztertu diren pertsonen behin-behineko zerrenda eta guzti. Prozesu honekin lotuta ematen diren eta ALHAOn argitaratzen diren ebazpen guztiak, halaber, udaletxeko iragarki taulan eta <http://www.ayuntamientodeoyon.com/es> webgunean sartuko dira.

Gainera, ebazpen horretan adieraziko dira lehenengo ariketa hasteko tokia, eguna eta ordua, eta kalifikazio epaimahaiko kide titularrak eta ordezekoak izendatuko dira.

Aipatu zerrendan baztertuta agertzen diren hautagaiak, APPELen 68.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, 10 egun balioduneko epea edukiko dute, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, baztertuak izateko akats edo hutsuneak zuzentzeko, bai eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko ere.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko zerrenda bihurtuko da. Erreklamazioak badaude, baietsi edo ezetsi egingo dira, eta, beharrezkoa bada, behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpen berri bat emango da, aurrekoaren modu berean jendaurrean erakutsiko dena.

Ebazpen honen aurka berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko da Alkatetze-burutzan, hilabeteke epean, behin betiko zerrenda ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Behin-behineko zerrendan baztertuak izan diren eta epe barruan zerrenda horien aurkako erreklamazioa aurkeztu duten pertsonak probak egin ahal izango dituzte, kautelaz, baldin eta planteatutako ebazpena ez bada data horretarako ebatzi. Halaber, behin betiko zerrendan baztertuak izan diren pertsonak probak egin ahal izango dituzte, kautelaz, baldin eta baztertuak izatearen aurka errekurtsu egokia aurkeztu dutela egiaztatzen badute eta errekurtsua data horretarako ebatzi ez bada.

#### **Seigarrena. Datuen babesa**

a) Oinari hauetan azaltzen den ariketa edo probaren batean parte hartzean, hautagaiak baimena ematen du bere eskabidean jasotako datu pertsonalak eta izen-abizena, NANA eta pres-takuntza maila mintzagai dutenak tratatu daitezzen, eta aldizkari ofizialetan, iragarki tauletan, webgunean, eta, orokorrean, hautaketa prozesuaren behin-behineko edo behin betiko emaitzen berri emateko erabiltzen den beste edozein bitartekotan argitaratu daitezzen, bai eta IVApek edo organo eskudunak egiaztatu dezaten ea euskararen edo beste edozein hizkuntzaren ezagutza maila egokia den eta, orokorrean, epaimahaiak egiazta dezan hautaketa prozesuko probak era egokian prestatu eta betearazteko beharrezko datuak egokiak diren.

b) Oinarri hauetan azaltzen den hautaketa prozesuan bete egin behar da publizitatearen printzipioa; horrenbestez, ez da onartuko eskabiderik, baldin eta hautagaiak ez badu datuak aurreko paragrafoan adierazitako edukiarekin eta helburuetarako erabiltzeko baimenik ematen.

c) Hautagaien datu pertsonalak fitxategi batean sartuko dira, hautaketa prozesua kudeatu ahal izateko tratatu daitezzen. Hautagaiak datuak eskuratzeko, ezetzatzeko, aurka egiteko eta zuzentzeko eskubidea gauzatu ahalko dute. Datu pertsonalen tratamendua abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, datu pertsonalenean, ezarritakoaren arabera eta datu pertsonalak dauzkaten fitxategi automatizatuen segurtasun neurriei buruzko araudian, ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuaren bidez onartutakoan, ezarritakoaren arabera egingo da.

**Zazpigarrena. Epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduera**

1. Deitutako hautaketa prozesua kalifikatu behar duen epaimahaia eratzean, bete egingo da uztailaren 6ko 3/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, 31. artikuluan eta urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 60. artikuluan adierazitakoa.

Epaimahai burua, idazkaria eta lau kide egongo dira, bai eta ordezeko kopuru bera ere. Kideok izendatzeko, inpartzialtasunaren eta profesionaltasunaren printzipioak bete beharko dira, eta emakumeen eta gizonen kopurua parekidea izango da.

Era berean, espezialitatearen printzipioa betetzen dela zainduko da. Gutxienez epaimahaiko kideen erdiek lanposturako eskatutako ezagutza arloko titulazioa izango dute, eta denek ikasketa maila berdina edo handiagoa eduki beharko dute. Epaimahaiko kide diren titular eta ordezekoak Alkatetzak izendatuko ditu, eta izendapena ALHAOn argitaratuko da. Kideetako bat IVAPek proposatuta izendatuko da. Hautaketa edo izendapen politikoko langileak, bitarteko funtzionarioak, aldi baterako langile lan kontratudunak eta aldi baterako langileak ezin izango dira hautaketa organoetako kide izan.

Hautaketa organoetako kideak nor bere izenean arituko dira beti, hau da, organo horietan ezingo da jardun inoren ordezkartzan edo kontura. Nolanahi ere, epaimahaiak aholkulari adi-tuen laguntza eduki ahalko du, egokitzen jotzen dituen alderdietan.

Euskararen ezagutza baloratzeko, IVAPek proposatutako beste kide bat egongo da kalifikazio epaimahai burua, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, 99.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Epaimahaia erabat burujabe izango da bere egitekoetan, prozeduraren objektibotasunaren erantzukizuna izango du, eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du.

2. Abstentzioa: epaimahaiko kide diren pertsonak ezingo dute esku hartu; urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarenak (aurrerantzean, SPAJL), 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat badago tartean, alkatetza jakinaren gainean jarri beharko da.

3. Ezespina: SPAJLren 24. artikuluen arabera, hautagaiek epaimahaia osatzen duten pertsonak ezetsi ahal izango dituzte, aurreko artikuluan aurreikusitako kausaren bat tartean denean.

4. Eraketa: epaimahaia ezingo da eratu, eta hark ezingo du jardun, baldin eta burutzarako eta idazkaritzarako izendatutako pertsonak edo horien ordezekoak eta gutxienez kideen (titular nahiz ordezeko) erdia bertaratu ez badira. Idazkaritzarako izendatutako pertsona ez da kontuan hartuko. Norbait bertaratu ezin bada edo gaixorik badago, eta, orokorrean, justifikatutako edozein arrazoi gertatzen bada, kalifikazio epaimahaiko titularren ordezekoak bertaratuko dira. Burutzarako izendatutako pertsonaren postua hutsik badago, hura falta bada, gaixorik badago edo legezko beste kausaren bat bada tartean, bere ordezkoa bertaratuko da, eta, hura ere ez badago, epaimahai burua artetik hierarkia, antzinasun eta adin altuena duena, ordena horretan. Idazkaritzarako izendatutako pertsona behin-behinean ez badago, postua hutsik dagoelako, hura ez dagoelako edo gaixorik dagoelako, bere ordezekoak beteko du lekua, edo, halakorik ezean, kalifikazio epaimahaiak erabakitzen duenak.

5. Jarduera: epaimahaia osatzen duten pertsona guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute; salbuespen bakarra idazkaritzarako izendatutako pertsona izango da, ezingo baitu botorik eman. Epaimahaiaren erabakiak bertaratu diren kideen gehiengo botoarekin hartuko dira, eta, berdinketarik badago, burutzan dagoenaren botoak ebatziko du. Jakinarazpenak egin eta gainerako gorabeherak ebazteko, epaimahaiak Oiongo Udalean edukiko du egoitza (plaza nagusia 5, 01320 Oion). Epaimahaiak agertzen diren zalantzak argitzeko eta deialdiaren garapen egokirako beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ahalmena dauka, oinarri hauek aurreikusten ez duten guztirako. Epaimahaiaren parte hartuz gero, otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan, zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzkoan, legez aurreikusitako kalte ordainak jaso ahal izango dira.

**Zortzigarrena. Hautaketa prozedura**

1. Hautagaiak aukeratzeko prozedura lehiaketa-oposizioa izango da, txanda librean.
2. Oposizio fasean bederatzigarren oinarrian deskribatzen diren ariketak egingo dira.

Epaimahaiak proba bakoitzean baloratuko du zein den metodorik egokiena hautagaien anonimotasuna eta konfidentziasuna bermatzeko, eta beharrezko neurriak hartuko ditu, metodo hori aplikatu dadin bai probak egitean, bai zuzentzean.

Kalifikazio epaimahaiak oposizio fasean probak egin ahalko ditu, oinarriotan aurreikusi ez den beste ordena batean, bai eta egun berean hainbat proba egin ere. Nolanahi ere, proba bakoitza ebaluatuko du, aurrekoa gainditu duten pertsonen kasuan. Proba bakoitzaren emaitzak iragarki taulan eta webgunean argitaratu ondoren, 3 egun balioduneko epea egongo da azterketa berrikusteko, eta beste 3 egun balioduneko epea erreklamazioak egiteko, azterketa berrikusteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Epaimahaiak une oro eskatu ahalko die hautagaiei behar bezala identifika dezatela beren burua. Horretarako, oposizioko ariketa guztietan eduki beharko dute nortasun agiri nazionala, pasaporte edo gidabaimena eskura. Prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak hautagaietarako bati deialdian eskatzen diren baldintzaren bat falta zaiola jakin badu, aurretiaz interesdunari entzunaldia eginda, baztertuta geratuko da, eta hautaketa prozesua deitu duen agintaritzari jakinaraziko zaio.

3. Lehiaketa fasea hautagaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratzea izango da, eta haietako bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, deialdian zehaztutako baremoaren arabera. Eskabideak aurkezteko epearen azken egunera arte eskuratutako merezimenduak bakarrik kontatuko dira.

4. Merezimenduen lehiaketa fasean ez da inor baztertuko, eta hautagaiek lortzen dituzten puntuak ez dira kontuan hartuko oposizio faseko probak gainditzeko.

**Bederatzigarrena. Oposizio fasea**

Oposizio fasean 75 puntu lortu ahal izango dira gehienez.

Bi ariketa egingo dira:

Lehenengo ariketa: nahitaezkoa eta baztertzaila. Bi zati izango ditu:

1a. Idatziz erantzun beharko da test erako galdetegi bat. Bertan, hainbat erantzun agertuko dira, baina bat izango da zuzena. Ezagutza gramatikalarekin, kalkulu errazarekin eta deialdi honen gai orokorretako edukiekin lotutako galderak izango dira (gaiak 1. eranskin gisa atxiki dira). Epaimahaiak erabakiko du zenbat galdera izango diren, erantzun okerren zioz zigorrik egongo den, probaren iraupena zein izango den, eta abar. Zati horri 10 puntu emango zaizkio gehienez, eta, gainditzeko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira. Epaimahaiak, kontuan hartuta eskatu daitekeen gutxienezko maila eta probetan erakutsitako ezagutza maila, ariketak egiten dituzten pertsonen nortasuna ezagutu baino lehen, ariketa gainditzeko gutxienez atera beharreko nota zein den adieraziko du, eta erabaki hori jendaurrean azalduko da.

2a. Idatziz erantzun beharko dira hainbat galdera, erantzun laburrekin, deialdi honen gai zehatzei buruz (gaiak 1. eranskin gisa atxiki dira). Epaimahaiak erabakiko du zenbat galdera izango diren, erantzun okerren zioz zigorrik egongo den, probaren iraupena zein izango den, eta abar. Zati horri 12 puntu emango zaizkio gehienez, eta, gainditzeko, gutxienez 6 puntu lortu beharko dira.

Bigarren ariketa: nahitaezkoa eta baztertzaila:

Proba praktikoa bat edo gehiago egin beharko dira, plazen eginkizunekin lotuta, epaimahaiak zehazten duen denboran. Proba horietan, honako gau hauek landu ahalko dira, besteak beste: igeltserotza; iturgintza; arotzeria; pintura; lorezaintza; makina eta tresnen erabilera; saneamendu, hornidura eta estolderia sareetako matxuren konponketa; hiriko altzarien konponketa; edo elementu mugikorren muntaketa.

Ariketa horretan 50 puntu banatuko dira, eta gainditzeko, gutxienez, 25 puntu lortu beharko dira.

Hirugarren ariketa: elkarrizketa (nahitaezkoa): bete beharreko lanpostuan komenigarriak edo/eta egokiak diren alderdi profesionalak baloratuko dira. Elkarrizketaren xedea hautagaia eskainitako lanpostura egokitzen ote den baloratzea izango da. Horretarako, berariaz ebaluatuko dira bere gaitasunak: gatazkak ebazteko gaitasuna, pertsonen arteko harremanetarako trebetasuna, motibazioa, prestutasuna... Gehienez, 3 puntu lortu ahal izango dira proba horretan.

Proba bakoitza egin baino lehen, webgunean jarraibideen orria argitaratuko da. Bertan, epaimahaiak azterketetan jarraituko dituen irizpideak adieraziko dira, besteak beste (galdera kopurua, oker erantzundakoen zigorra edo zigorrak eza, probaren iraupena...).

Aukerako erantzunak dituzten proben kasuan, gehienez ere 48 orduetan argitaratuko dira kasuan kasuko prozesuak zuzentzeko txantiloiak.

#### **Hamargarrena. Lehiaketa fasea. Alegatutako merezimenduak egiaztatzeko epea eta modua**

Lehiaketa fasean 25 puntu lortu ahal izango dira gehienez.

2018ko lan eskaintza publikoarekin batera onartzen diren hautaketa prozesuetan aplikatu beharreko irizpide orokorren arabera, berariaz baloratuko da hautagaiek antzeko eginkizunetan bitarteko edo aldi baterako langile gisa egiaztatutako esperientzia.

Eskabideak aurkezteko epearen azken egunera arte eskuratutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

Oposizio fasea gainditzen duten hautagaiak lehiaketa fasera pasako dira. Merezimenduak kalifikatzeko, oposizio faseko 2. ariketako emaitzak argitaratu ondoren hamar (10) egun baliorduneko epea ezarriko da, ariketa gainditu duten hautagaiek beren eskabidean alegatutako merezimenduak egiazta ditzaten. Aurretiaz jaso ziren eta epe egokian aski egiaztatu diren (jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkeztuta) merezimenduak baino ez dira baloratuko.

##### **A) Esperientzia:**

Merezimendu horri gehienez ere 12 puntu emango zaizkio, honako baremo honen arabera:

– Administrazio publikoan emandako zerbitzuak, ofizialaren lanpostuetan: gehienez ere 12 puntu. Lan egindako hiruhilabeteko bakoitzeko 0,60 puntu emango dira, lanaldi osoan egonez gero. Lanaldi partzialekoak badira, koefiziente zuzentzailea aplikatuko zaie dagokien proportzioan. 3 hilabetetik beherakoaldiak ez dira zenbatuko.

– Sektore pribatuan emandako zerbitzuak, ofizialaren lanpostuetan: gehienez ere 12 puntu. Lan egindako hiruhilabeteko bakoitzeko 0,45 puntu emango dira, lanaldi osoan egonez gero.

Lanaldi partzialekoak badira, koefiziente zuzentzailea aplikatuko zaie dagokien proportzioan. 3 hilabetetik beherakoaldiak ez dira zenbatuko.

Atal honetan ez dira baloratuko Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 96.1. artikuluan aipatzen diren aldi baterako langileen zerbitzuak, ez eta bekak eta prestakuntzarako praktikak ere.

Egiaztatzeko modua: administrazio publikoan emandako zerbitzuak kasuan kasuko zerbitzuak jaso dituen administrazioaren ziurtagiri bidez egiaztatu beharko dira. Bertan, berariaz adieraziko dira zerbitzuaren iraupena eta betetako lanpostua, eta deitzen den plazari egokitutako eginkizunen arabera baloratuko dira.

Oiongo Udalean emandako zerbitzuak ez dira agiri bidez egiaztatu beharko, eta hautagaien espediente pertsonaletan ageri diren datuen arabera baloratuko dira, baldin eta eskabidean jaso badira.

Sektore pribatuan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, kasuan kasuko zerbitzuak jaso dituen enpresaren ziurtagiria edo lan kontratua aurkeztuko da, bai eta laneko bitzta ere, gizarte segurantzak igorria.

Hautagaiek egiaztatu beharko dute alegatutako esperientzia profesionala deitutako lanpostuaren kategorian bertan edo antzekoan eman dela. Horrez gain, esperientziaren iraupena egiaztatuko beharko dute.

B) Titulazioa:

Merezimendu horri gehienez ere puntu 1 emango zaio, honako baremo honen arabera:

Lanpostuaren eginkizunen batekin lotutako oinarrizko prestakuntza profesionaleko tituluren bat edukitzea: agiri originala edo kopia konpultsatua aurkeztu beharko da egiaztatzeko.

Lanpostuaren eginkizunekin lotutako prestakuntzak honako hauek dira:

Nekazaritza-lorenzaintzaren edo lore konposizioen gaineko oinarrizko prestakuntza profesionala, 0,4 puntu.

Eraikinen erreforma eta mantentze lanen gaineko oinarrizko prestakuntza profesionala, puntu 1.

Etxebizitzaren mantentze lanen gaineko oinarrizko prestakuntza profesionala, puntu 1.

Arotzeria lanen eta altzarien gaineko oinarrizko prestakuntza profesionala, 0,4 puntu.

Baso aprobetxamenduen gaineko oinarrizko prestakuntza profesionala, 0,4 puntu.

Merezimendua egiaztatzeko, kasuan kasuko ikastarora bertaratu eta hura gainditu dela egiaztatzeko titulua edo ziurtagiria aurkeztu beharko da: nola agiri originala, hala fotokopia konpultsatua edo erkatua. Bertan, emandako gaiak eta ikastorduek adieraziko dira.

C) Prestakuntza:

Merezimendu horri gehienez ere 1,5 puntu emango zaizkio, honako baremo honen arabera:

Prestakuntza eta hobekuntza profesionaleko ikastaroak gainditzea baloratu egingo da, baldin eta horiek azken 10 urteetan egin badira, eta bete nahi den plaza edo lanpostuarekin lotuta badaude. Halaber, IVAP edo INAP bezalako erakundeek edo gainerako prestakuntza zentro ofizialek, edo etengabeko prestakuntzarako planak egiten lankidetzan aritzen diren erakunde eta instituzioek antolatu edo homologatzen dituztenak soilik baloratuko dira. Salbuespena izango dira A atalean baloratzen diren lan arriskuen prebentzioaren gaineko berariazko prestakuntza ikastaroak.

– 10 eta 40 ordu arteko iraupena duen ikastaro bakoitzeko: 0,10 puntu.

– 41 eta 80 ordu arteko iraupena duen ikastaro bakoitzeko: 0,20 puntu.

– 80 ordu baino gehiagoko ikastaro bakoitzeko: 0,50 puntu.

B atalean ezarritako eran egiaztatuko dira.

D) Lan arriskuen prebentzioaren gaineko prestakuntza.

Merezimendu horri gehienez ere puntu 1 emango zaio, honako baremo honen arabera:

Lan arriskuen prebentzioaren gaineko berariazko prestakuntza ikastaroak gainditzea baloratuko da. Prestakuntza hori prebentzio zerbitzu batek edo gai horretan prestakuntza jarduera zehatzak garatzeko gaitasuna duen erakunde publiko edo pribatu batek eman beharko du.

– Gutxienez 30 orduko iraupena duen ikastaro bakoitzeko: 0,50 puntu.

– Gutxienez 50 orduko iraupena duen ikastaro bakoitzeko: 0,75 puntu.

– 80 ordu baino gehiagoko ikastaro bakoitzeko: puntu bat.

B atalean ezarritako eran egiaztatuko dira.



E) Gidabaimenak eta makinak erabiltzeko baimenak.

Merezimendu horri gehienez ere 1,5 puntu emango zaizkio, honako baremo honen arabera:

C1 E kategoriako gidabaimena edukitzeagatik: 1,25 puntu.

Lan ekipo automotorrak segurtasunez gidatzeko gutxienez 20 orduko berariazko prestakuntza edukitzeagatik: 0,25 puntu.

B atalean ezarritako eran egiaztatuko dira.

F) Euskara, 1. hizkuntza eskakizuna edo altuagoa.

Merezimendu horri gehienez ere 7,5 puntu emango zaizkio, honako baremo honen arabera:

1. hizkuntza eskakizuna egiaztatzea: 7,5 puntu.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko, IVAPen ziurtagiria aurkeztu ahal da, 1. hizkuntza eskakizuna edo altuagoa eskuratu dela egiaztatzen duena, bai eta haren baliokideak ere. Lehenengo hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria indarrean eduki beharko da dagokion euskara ariketa egiteko ezarritako egunean.

IVAPek deialdi bateratuak egiten ditu hautaketa prozesuetako hizkuntza eskakizunen azterketak gauzatzeko, eta hark ezartzen duen egutegiaren arabera egingo dira euskara probak.

#### **Hamaikagarrena. Hautaprobek hasiera eta garapena**

1. Oposizio faseko lehenengo ariketa egiteko eguna, ordua eta lekua ALHAOn argitaratuko dira, onartu diren eta baztertu diren pertsonen behin-behineko zerrendarekin batera.

2. Udalaren iragarki taulan eta webgunean argitaratuko dira gainerako ariketei buruzko iragarkiak.

3. Hautagaiak deialdi bakarrean deituko dira ariketa bakoitzerako. Agertzen ez diren pertsonak baztertu egingo dira, behar bezala justifikatutako eta epaimahaiak askatasunez baloratutako kasuetan izan ezik.

#### **Hamabigarrena. Hautaprobetako kalifikazioa**

Proba baztertzailak gainditu dituzten hautagaien azken kalifikazioa oposizio eta lehiaketa faseetan lortutako puntuak batuz aterako da. Puntuazio horrek ezarriko du ordena.

Berdinketarik badago, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 27.2. artikuluan eta otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Eusko Legebiltzarrarenak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 20.4.a) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, trebakuntza berdina de kasuetan emakumeek izango dute lehentasuna, eta, hala ere berdinketak bere horretan jarraitzen badu, oposizio fasean puntuaziorik altuena eskuratu duena proposatuko da lehendabizi, eta oposizio faseko ariketa praktikoan puntuazio altuena eskuratu duena bigarrenik. Ariketa bakoitzaren puntuazioa udalaren iragarki taulan eta webgunean argitaratuko den iragarkiaren bidez jarriko da jendaurrean, epaimahaiak kalifikazioak erabaki eta hurrengo 48 orduetan.

#### **Hamahirugarrena. Onartutakoen zerrenda eta kontratazio proposamena**

1. Oposizio faseko azken ariketa amaitutakoan, epaimahaiak udaleko iragarki taulan eta webgunean argitaratuko ditu puntuaziorik altuena eskuratu duten bi hautagaien izenak. Epaimahaiak alkatetzara igorriko du akta, praktiketako lan kontratuaren titular izendatu dituen pertsonen proposamen eta guzti. Akta horretan agertu beharko dira, halaber, puntuazioaren arabera, parte hartu duten, ariketa guztiak gainditu dituzten, eta deitutako lanpostuetatik at geratu diren pertsonak. Izan ere, proposatutako pertsonen lan kontratua formalizatzen ez badute, zerrenda hori baliatuko da, baina soilik kasu horretan; hau da, zerrendak ez du beste eskubide edo itxaropenik sortzen.

2. Kalifikazio epaimahaiak hutsik deklaratu ahalko du deialdia, baldin eta bere ustez hautagaietako bat ere ez bada egokia.

3. Kalifikazio epaimahaiak emandako ebazpena loteslea izango da kontratazioen gaineko eskumena duen organoarentzat. Hala ere, organo horrek ebazpena berraztertu ahal izango du, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen gaineko indarreko legedian ezarritakoaren arabera.

#### **Hamalaugarrena. Agiriak aurkeztea**

1. Eskatzen diren agiriak: kontrataziorako proposatu diren pertsonak agiri egokiak aurkeztuko dituzte, deialdi honen oinarrien arabera hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko; zehazki, honako hauek:

a) Jaiotza ziurtagiria, dagokion erregistro zibilak emana. Ziurtagiri horren ordez, familia liburua erakutsi ahalko da.

b) Medikua ziurtagiria, lanpostuaren berezko eginkizunak normaltasunez egitea galarratzen duen gaixotasunik edo mugapen fisiko edo psikikorik ez duela jasotzen duena. Hala ere, apirilaren 7ko 13/1982 Legea, minusbaliatuak gizarteratzeari buruzkoa, aplikatu ahalko da. Ezintasunen bat duten pertsonak organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, izaera hori eta lanpostuaren berezko eginkizunak betetzeko gaitasuna egiaztatzeko.

c) Aitorpena, herri administrazioaren bateko zerbitzutik diziiplina espediente bidez baztertuta ez dagoela, eta ezintasun eta bateraezintasun kausaren batean ez dagoela adierazten duena. Bateraezintasun horiek zein diren abenduaren 26ko 53/1984 Legean, herri administrazioetako langileen bateraezintasunei buruzkoan, eta apirilaren 30eko 598/1985 Errege Dekretuan, herri administrazioetako langileen bateraezintasunei buruzkoan, dago jasorik.

d) Eskatutako tituluaren fotokopia, behar bezala konpultsatuta: eskola ziurtagiria.

2. Non eta noiz aurkeztu: agiri horiek Oiongo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (plaza nagusia 5, 01320 Oion), hogeita (20) egun naturaleko egunean, onartutako pertsonen zerrenda argitaratzen denetik aurrera.

3. Agiriren bat aurkeztu ezean: aipatutako epean, halaberrezko kasuetan izan ezik, proposatutako pertsonaren batek ez baditu eskatutako agiriak aurkezten, edo agiriak aztertzean 3. oinarrian aipatutako baldintzaren bat betetzen ez duela ondorioztatzen bada, ezin izango da kontratatu, eta bere jarduera guztiak bertan behera geratuko dira; gainera, hautapen prozesuan parte hartzeko eskabidean gezurra esateagatik sor daitekeen erantzukizuna izango du. Kasu horretan, organo eskudunak praktiketako lan kontratuaren titular izendatuko du 13.1. oinarrian aipatutako aktako ordenaren arabera dagokion pertsona.

#### **Hamabosgarrena. Praktiken fasea**

1. Aurreko oinarrian aipatutako dokumentazioa aurkeztutakoan, proposatutako pertsonak praktiketako lan kontratu baten titular izendatuko dira, gehienez ere 8 hilabeteko aldirako. Izendapenaren berri emango zaie proposatutako pertsonari eta hautaketa prozesuko ariketa guztiak gainditu dituzten gainerako hautagaiari.

2. Laneko ezintasunaren, amatasunaren, aitatasunaren eta adopzio edo harreraren ziozko lizentziak hartzen badira, praktiketako aldia eten egingo da, eta lanera berriz itzultzean hasiko da berriz ere zenbatzen.

3. Praktikaldia amaitu aurreko hilabeteko epean, ebaluazio batzorde batek txosten bidez aztertuko du ea hautagaiak bete beharreko lanpostuetara egokitzen diren ala ez. Txostena egitean, kontuan hartuko dira erakutsi dituzten abilezia eta gaitasunak: lanerako gaitasuna, etekin profesionala, erantzukizuna, eraginkortasuna, ikasteko interesa, prestutasuna eta ekimena. Era berean, lantaldean integratzeko eta barruko nahiz kanpoko harremanetara egokitze gaitasuna ere aintzat hartuko da. Ebaluazio batzordeko kide izango dira obretako lantaldearen arduraduna eta epaimahai kalifikatzeko kideetako gutxienez hiru.

4. Txostena aldekoa bada, ebaluatutako pertsonak praktikaldia gaindituko dute.

Plantillako lan kontratu finkodun langile izendatu baino lehen, hautagaiek azterketa mediko bat egin beharko dute udalak adierazten duen prebentzio sozietatean, beren osasun egoera eta lanpostuaren berezko eginkizunak garatzeko gaitasuna egiaztatze aldera. Medikuaren ziurtagiriaren aurka jotzen bada, horiek egiteko oinarritzat erabili diren txosten medikoak kasuan kasuko erreklamazioa aztertuko duen organoaren esku jartzeko baimena emango dute hautagaiek, beren ohore eskubidea ukitzen ez denean.

Medikuaren azterketa gainditzuten duten hautagaiak Oiongo Udaleko plantillako lan kontratu finkodun langile bihurtuko dira. Kontratazioa interesdunei jakinaraziko zaie, eta ALHAOn argitaratuko da.

Izendatutako pertsonak gehienez ere hilabeteko epean sinatu beharko dute lan kontratua, beren izendapena ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera. Baldin eta aipatutako epearen barruan hautagaiek lan kontratua sinatzen ez badute, horretarako arrazoi justifikaturik egon gabe, lanpostuari uko egin diotela ulertuko da, eta, beraz, eskubide hori zuzenean geratuko da indarrrik gabe. Kasu horretan, organo eskudunak praktiketako lan kontratuaren titular izendatuko du 13.1. oinarrian aipatutako aktako ordenaren arabera dagokion pertsona.

5. Txostena kontrakoa bada, ebaluatutako pertsonak ez du praktikaldia gaindituko, eta kontratatua izateko eskubide oro galduko du. Hamar eguneko epea emango zaio bere eskubideari dagozkion alegazio edo oharrak egin ditzan. Organo eskudunak, alegazioak aztertu ondoren, praktikaldia gainditu ote den ebaztuko du, eta ukitutako pertsonari emango dio erabakiaren berri. Kasu horretan, organo eskudunak lan kontratuaren titular izendatuko du 13.1. oinarrian aipatutako aktako ordenaren arabera dagokion pertsona.

#### **Hamaseigarrena. Lan poltsa**

Hautaketa prozesuko ariketa guztiak gainditu dituzten baina plazarik eskuratu ez duten hautagaiak lan poltsa batean sartuko dira, eta, beraz, eskubidea izango dute, hautaketa prozesuan eskuratutako puntuazioaren arabera, ofizialaren, peoiaren edo antzekoen lanpostuetan sortzen diren langile premiak estaltzeko. Lan poltsa horrek ondorerik gabe utziko du behin-behineko kontratazio zerrenden araudiak arautzen duen aurreko lan poltsa (Lang/ListaTempOssmmRglto erreferentzia), hots, Oiongo Udalak 2015eko maiatzaren 6ko alkatetza ebazpenaren bidez onartu eta 2017ko uztailaren 5eko alkatetza ebazpenaren bidez partzialki aldatutakoa. Hala, indarrean egongo da, beste deialdi, oposizio edo lehiaketa-oposizio bat egin arte.

Deia jasoko duten hautagaiek, aldi baterako langile lan kontratudun gisa kontratatu baino lehen, deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko agiri originalak edo konpultsatuak aurkeztu beharko dituzte.

Lan poltsan ezarritako dei ordena zehatz-mehatz beteko da. Gehienez ere hiru aldiz saiatuko da interesdunarekin harremanetan jartzen, telefonoz edo posta elektroniko bidez, bi eguneko epean. Kontaktatuko den pertsonak eskaintza onartu edo baztertu beharko du, gehienez ere 24 orduko epean. Behin-behinean bajan badago, egoera hori justifikatu beharko du, eta, hala egin ezean, lan poltsan behin betiko emango zaio baja.

Interesdunarekin harremanetan jartzea lortzen ez bada edo behin-behinean bajan dagoela justifikatu bada, ez da poltsan duen egoera aldatuko, eta poltsako hurrengo hautagaiari egingo zaio dei. Kudeaketa guztien emaitza behar bezala jasoko da espedientean.

Behin-behineko baja eragin dezaketen inguruabarrak, hautagaiak modu sinesgarrian adierazi eta justifikatzen dituenean, honako hauek dira:

Administrazio publikoan zerbitzuak ematen egotea, gaixotasun edo istripuren bat izatea, familia gertaeraren bat jazotzea (erditzea, pertsona gaixo edo elbarriren baten mendetasun zuzena, aitasuna — erditzetik 4 aste —, amatasuna — erditzetik 16 aste- adopzioa edo harrera — gertatu zenetik 4 aste—), edo beste edozein egoera berezi gertatzea, betiere alkatetzak hala

erabaki badu eta behar bezala justifikatuta badago. Behin-behineko bajara pasatzea eragin zuen arrazoia amaitutakoan, interesdunak idatziz jakinarazi beharko dio udalari, 10 eguneko epean. Jakinarazpen horretatik aurrera, interesduna berriz ere egongo da eskuragarri lan poltsan.

Kontratua amaitutakoan, hautatutako pertsona dagokion lan poltsara itzuliko da; zehazki, lehen zegoen posizio berera. Lan poltsan behin betiko emango zaio baja, baldin eta eskaintza bat arrazoirik gabe bazterten badu, kontratua amaitu baino lehen bere borondatez uko egiten badio, edo ohartarazpena ez den beste zigorren bat jaso badu.

#### **Hamazazpigarrena. Gorabeherak**

1. Interesdunek deialdiaren, oinarrien, haien ondoriozko administrazio egintza guztien eta epaimahaien jardunaren aurka egin dezakete, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, ezartzen dituzten kasuetan eta finkatzen duten moduan.

2. Epaimahaiak ahalmena du sortutako zalantzak argitu eta lehiaketa-oposizioaren garapen egokiaren helburuetan erabakitzeko, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera.

### **I. ERANSKINA**

#### **GAI OROKORRAK**

1. gaia: 1978ko Konstituzioa: printzipio orokorrak; oinarritzko eskubideak eta askatasun publikoak.

2. gaia: 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena: atariko titulua.

3. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena: udal erakundeko oinarritzko organoak (alkatetza, alkatetzaordeak eta osoko bilkura). 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko toki erakundeei buruzkoa.

4. gaia: Oion udalerria. Ezaugarri geografikoak. Udal barrutiaren mugak. Erdigunea. Hiri bideak eta zeharbideak. Landa bideak.

5. gaia: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa eta haren aplikazioa administrazioaren jardunean. Genero indarkeriaren aurkako politikak. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoa.

6. gaia: Mendetasun egoeran dauden pertsonen eskubideak eta betebeharrak. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta euren gizarteratzeari buruzko Lege Orokorra. 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, irisgarritasuna sustatzekoa.

20/1990 Foru Araua, ekainaren 25ekoa, Arabako Lurralde Historikoko errepideena.

#### **GAI ZEHATZAK**

1. Neurketa sistemak, tresnak eta unitateak.

2. Obra publikoetan, estoldetan eta saneamenduan erabili ohi diren materialak. Oinarritzko eraikuntza prozedurak.

3. Bide publikoan elementu mugikorren muntaketa. Aldamioak, tribunak, karteldegia, hesiak eta abar.

4. Hiri altzariak. Motak eta konponketa ohikoenak.

5. Laneko arriskuen prebentzioa: lanpostuko segurtasun eta higiene neurriak. Produktu toxiko edo arriskutsuak. Babes pertsonala eta kolektiboa.
6. Saneamenduaren gaineko kontzeptu orokorrak. Edateko ura, saneamendukoa eta estolderietakoa hornitzeko sareak; urak ebaluatzeko instalazioak mantendu eta matxurak konpontzeko lanak.
7. Igeltserotzaren gaineko kontzeptu orokorrak. Materialak, tresnak eta horien erabilera. Igeltserotza lanak.
8. Iturgintzaren gaineko kontzeptu orokorrak. Materialak, tresnak eta horien erabilera. Matxurak eta konponketak.
9. Soldaduraren gaineko ezagutzak, motak, erabili beharreko materialak eta teknikak.
10. Zerbitzuen gaineko oinarrizko matxurak eta konponketak. Makina eta tresnen erabilera. Larrialdien konponketak.
11. Arotzeria, pintura eta lorezaintzaren gaineko kontzeptu orokorrak. Materialak, tresnak eta horien erabilera. Arotzeriaren gaineko oinarrizko teknikak. Mantentze eta konponketa ohikoenak. Landare osasunerako produktuak: produktuak erabiltzearen ziozko arriskuen prebentzioa.
12. Orga jasotzaile automotorrak: arriskuen prebentziorako oinarrizko ezagutzak, arrisku nagusiak, eta prebentzio, mantentze eta erabilerarako neurriak.
13. Esku mailu pneumatikoaren erabilera segurua.